

noaua

**Eginklik!, ordenagailuak
berrerabiltzeko lan taldea**

**Datorren astean hasiko da
NOAUA! Kulturaldia**

**Euskal zineaz gozatzeko
hasteko lehen aukera,
igande honetan Sutegin**

TANTAZ TANTA...
EUSKAL ESKUBIDEEN ALDE
PRESOEN

Legea eskuetan,

**Ramon Uribek ere
kalean egon beharko luke**

50€



Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

AUZOLANARI ESKER 50 € REN TRUKE ZURE ESKURA. BERTAKOA ETA KALITATEKOA GAINERA NAFARROA HEGOALDEKO EUSKALGINTZARA JOANGO DA EKARPEN HORREN 1/25A

ERRI GORA

Facebook: <https://www.facebook.com/1832008149400>

Twitter: [errigorra](https://twitter.com/errigorra)

nooian eskuratu dezakezu



FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?
DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H) IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU, ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN

ASEGURURIK EZ DUZUE?
AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU, ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN USURBILGO BEILATOKIA DOAN FINANTZAKETA INTERESIK GABE OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK

Tel: 943.36.21.63

BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHORZKETA ENPRENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN

info@funerariagonzalez.es munalurra 8, Usurbil



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL PARTIDUAK GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)



Marije
Arropa denda

Etxebeste, 3 - 943 36 11 06 - USURBIL

Albisteak iruditan

Artisautza Azoka, epaiketa artean

Auzitegi Nazionalaren aginduz sei urte egon da itxita Aitzaga elkarte eta taberna, orain epaitegien jomugan dago, 35/02 sumarioan auziperatua, baina guzti honen gainera, urteotan elkarte kideek lanean jarraitzeko konpromiso irmoari eutsi izan diote. Eta denbora honetan bideratu izan dituzten hainbat ekimen, ederki asko sustaritu dira Usurbilgo kultur eskaintzan. Ekimenon adibide argietako bat dugu, ostiral honetan, frontoian ospatuko den Artisautza Azoka. Konturatzeko, "adin nagusitasuna" izatera heldu da. Hemezortzigarren edizioa baitu aurten.

Beste behin, hildakoei gorazarre egiten zaien azaroaren lehen egunean, eskuz eginiko denetarik produktuak bilduko dira pilo-



Azaroaren 1ean, goizeko 11:00etan irekiko dute azoka.

talekuan. 25. antolatzaileek berri eman dutenez. Bitxiak, larrugintza, egur lanketa, otargintza, zeramika, metalgintza... Postuotatik barrena osteratxo egin eta erosketaren bat egiteko modua izango da ziur. Gai-

nera, mokadutxo ederra dastatu ahal izango da; urtero moduan, taloa eta txorizoa egiten arituko da eta herri-tar talde bat. Artisautza Azokaren hemezortzigarren edizioa, azaroaren 1ean, 11:00etan hasita frontoian.

"Libre" gunea

Artisautza Azokan

Espainiako Auzitegi Nazionalean 36 lagun eta 110 herriko taberna edo elkarte epaitzen ari dira asteotan, 35/02 edo "Herriko tabernak" izenez ezagutzera eman den sumarioaren baitan. Epaiketa hasi zenetik zenbait mobilizazio burutu dira jada "Libre" ekimenaren baitan. Elkarretaratzea epaiketa abiatu berri eta manifestazio nazionala burutu zen iragan larunbatean, Bilbon.

Asteartean Aitzaga Elkarrekin aurkezturiko mozioa bozkatzeko zen udalbatza, urriko osoko ohiko bilkuran.

Eta ostiral honetan, Artisautza Azoka egunean bertan, "Libre" gunea antolatu dute baita, Madrilgo epaiketa salatu eta auziperatuei elkartasuna adierazteko.

Laburrean

Igande honetan, poesia errezitaldia gaztetxean

Zuzeneko musika eta hitzak biltzen dituen emaldia antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak, azaroaren 3rako, igandea. Gaztelan izango den saioak "Concertino para orgánico y palabra" izena du. 19:00etan eskainiko da, Alkartasuneko kooperatiba ohian. Sarrera, 3 euro.

Esperientzia Eskolan izena emateko garaia

Gogoan izan, 50 urtetik gorako doako hezkuntza eskaintza honi loturiko saioak asteartero izatzen direla, 16:00-18:00 artean Artzabalen.

Izena emateko deitu Gizarte Zerbitzuetara, 943 377 110 telefono zenbakira edo idatzi, gizarte-zerbitzuak@usurbil.net helbidera.

Autobus zerbitzua hobetzeko ekimena

Udalak gai honi lotuta banatu duen orrialdea bete, eta urria amaitu baino lehen postontziotako batean utzi daiteke. Kaxkoan, udaletxeko erregistroan eta anbulatorioan. Aginagan, Arrate egoitzan. Santuenean, auzo elkarteetan. Zubietan, Herri Batzarreko postontzian.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.com /// www.noaia.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitate: Bea Alda,

publizitate@noaia.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Boligrafoak eta liburuak fusilen kontra

Urriaren 10ean Europako parlamentuak Andrei Sajarov saria eman zion Malala neska gazteari; Pakistango taliban batek hiru tiro eman zizkion duela urte bete, hain zuzen ere, nerabe honek bere herriko neska eta mutil kozkorren eskolara joateko eskubidea defendatzen duelako. Pakistango legebiltzarreko arduradunen ustez "ez da sinestekoa gaztetxo honen ausardia".

Sari hau oso ospetsua da; Errusiak eman duen fisiko handienetako bat izan zen A. Sajarov; baina, giza eskubideak defendatzeagatik sobietarren diktadura garaian, irabazitako domina guztiak kendu zizkioten (nonbait pertsonarik kondekoratuena Errusiako historian zehar), irakastea debekatu, gutxietsi eta atzerriaratu izan zen. Bakearen Nobel saria irabazi zuen 1985ean. Bere izenean sortu zuten 1975ean kontzientzia askapenaren saria.

Hamasei urte ditu orain Malalak; kazetari batek honela deskribatzen du: "txikia da, baina burua biribila du, sendoa, elfo gisako gorputzean;

bere jantzi tradizionalak kolore bizia du, ile beltz polit bat agerian daroma, detaile oso garrantzitsua adierazteko bere borroka "burka" makur eta lotsagarri horren aurka". Aita maisua izan da Pakistanen eta bere blegean idazten zuen Malalak 11 urtez gerotikezizen bat erabiliz; baina talibanean aurkitu zuten zein gordetzen zen izengoiti horren azpian. Berehala matxinatu zuten gaztetxoaren heriotza. Talibanak dira Pakistango musulman fanatiko eta bortitzenak. Emakumearen eskolatzearan aurka daude, kulturak pertsona librean bihurtzen baitu eta hauek ez dute emakume askerik nahi, eskolabai zik.

Hiru balakada jaso ondoren, koman pasa zituen hilabete batzuk; bi ebakuntza egin zizkioten Ingalaterran eta onik ateratu zen azkenean. Berak dioenez "jendearen otoitzari esker eta erizain eta medikuen lan bikainagatik; Jainkoak beste bizi bat eman omen dit".

"Malala nauzu" liburua idatzi du eta besteak beste, aitari omenaldi bikaina eskaintzen dio bertan; tali-

banen errepresioa iritsi zenean, bere aitak aurre egin zien bizia arriskuan jarritz. Kulturaren bitartez mundu zuzenago eta baketsuago bat erai ki nahi zuen. Gainera, gizarte matxista horretan bere alabari libertate eta konfiantza osoa eskaini zizkion; baita lagundu ere bere proiektu guztietan; ez dago zalantzarik, Malalaren ibilbide paregabe horretan aita izan dela gidari nagusia. Nolako zura halako ezpala.

Nerabe honek ezin du jasan Pakistango egoera tamalgarri hori: 5 milioi haur eskolarik gabe, gehienak neskak; munduan zehar berriz, 57 milioi UNESCOk dioenez. Malala konturatu zen Pakistango Gobernuak ez zuela ia ezer egiten hezkuntza arloan eta horregatik hartu zuen eskolatzearan alde borrokatzeko erabakia. Rosa Monterori eskainitako elkarrizketa batean esaten zuen gauza hauek aldatzeko politikaria izan nahi zuela, eta liderra gainera. "Pakistango jendea oso zatitua eta desbideratua dago. Denak batu nahi ditut eta berdintasuna eta justizia ezarri. Eta hori

lortzeko boterea behar dut".

Bere liburuan honela dio: "jakintsuek esaten dute boligrafoa ezpata baino indartsuagoa dela; talibanean beldurra diete boligrafoei eta liburuei; kulturak izutu egiten ditu; emakumeen beldur dira; horregatik jartzen dituzte lehegailuak eskolatan. Terroristek pentsatu zuten nire asmoak aldatuko zituztela ni tirokatuz, baina porrot egin zuten. Beldurra hil da eta ausardia jaiotzen da niregan. Betiko esperantzarekin eta ametsekin jarraitzen dut".

Ez du gorrotatzen tirokatu zuen talibana; "arma bat banu ere nire eskuetan eta talibana aurrean, ez nioke tirorik egingo; hau da Mahoma, Jesus eta Budarengandik jaso dudana errukia. Hauxe irakatsi didate Luther Kingek eta Mandelak".

Berarentzat garbi dago: liburuak eta boligrafoek izango dute azken hitza eta ez talibanen fusilek. Amets bakartia amets huts bilakatzen omen da, baina, amets konpartitua erreallitate. Pakistango neskak laguntzen badiote, denen artean irabaziko dute.

Luken Arkarazo | Aritz Gorriti | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Udajolaseko ahazturiko arropa, NOAUA!n

Uztailean zehar Udalak eta NOAUA! Kultur Elkar-teak antolatuta, Udajolas aisialdiko ekimenean parte hartu zuten haurrek utzitako edo galdutako arropa, elkarteko egoitzan dugu. Hilabetez, NOAUA!n izango da. Gero, arropa berrerabiltzeko ontzira eramango dugu. Edozein argibideetarako deitu: 943 360 321.

1952 jaio zirenen kinto bazkaria

Abenduaren 1erako finkatu dute hitzordua, 14:00etan Atxega jatetxean. Ordaindu behar-koa, 35 euro. Izen ematea azaroaren 22ra arte. Informazio gehiago: 943 361 380 (Kontxi). "Neska-mutil, animatu egun eder bat ospatzeko, bi egun gelditzen zaizkigu-eta", luzatu dute gonbita.

1973koen kinto bazkaria

Atxega jatetxean, azaroaren 23an batuko dira 1973an jaiotakoak. 12:00etan elkartuko dira Bordaxon hamaietako legea egiteko, eta 14:00etan bazkaltzera Atxegara.

Izen ematea azaroaren 15era arte zabalik izango da eta emailaz idatzi behar da helbide honetara: usurbil1973@hotmail.com helbidean.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361 182

WHEEL ACADEMIA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batzilergoa - Selektibitatea
- Labide heziketa
- Ikasketak teknikoak - Hizkuntzak

629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Errealitatea onartu gabe

A lbiste gazi-gozoek Ucineko aferaren inguruan. Aurrez iragarri moduan, Usurbilgo Udala, Ucin eta Eusko Jaurlaritzaren urriaren 10ean bildu ziren Donostian. Enpresak eskatu eta Jaurlaritzak deituriko hitzorduan, bi aztergai nagusi hartu zituzten ahotan; ikuskapenak egiteko protokoloa batetik, eta UCIN-ek bere labean hondakinak erre ahal izateko egina zuen baimen eskaera bigarrenik.

Berri onak, ikuskapenak egiteko protokoloari dagokionez; "hasierako adostasuna" lortu dute eta. "Maiztzean Udala bera saiatu zen bere ikuskapenentarako protokolo bat adosten enpresarekin, baina honek ez zuen udalak egindako proposamena onartu, Udalak ikuskapenak egiteko eskuduntza ez duela argudiatuz. Horren ondorioz, ekainean udalak egin zuen bere lehenengo ikuskapena nahiko gorabeheratsua izan zen. Oraingo bilera honetan, aldiz, ikuskapenak egiteko udalak duen ahalmenaren inguruan inork ez du zalantzarik agertu, eta hasierako adostasuna lortu egin da", berri eman dute Usurbilgo Udaletik.

Urte askotako kontua

Bestelako kontuak ordea, urte luzez herritarren hainbat kexu eragin dituen ke eta usain txarren inguruan. UCINek bere labetan hondakinak erretzeko eskatua zuen baimena eskuratzetik geroz eta gertuago egon liteke. "Bileran Jaurlaritzak berretsi zuen laister erantzungo duela UCIN-ek apirilean bere labean hondakinak erretzeko egindako eskaera, horretarako baimena emanaz, nahiz eta udalak kontrako eskaera egin. Egoera berri horren aurrean, Udalak



Urriaren 10ean bildu ziren Udala, Ucin eta Eusko Jaurlaritzaren.

EUSKO JAURLARITZA

"Ez du ikusten inongo arazorik Ucinen inguruan, Usurbilgo airean egindako neurketetan ezer agertzen ez delako eta, berez, ez du "datu objetiborik" enpresari ezer exijitzeko"

emandako iharduera lizentzia berri-kusiko duela iragarri zuen. Bere aldetik, UCINek, aipatutako lizentzia auzitara eramateko zuen asmoa atzeratuko du oraingoz", adierazi dute Udaletik.

Airearen kalitatea aztertze konpromisoa

Eusko Jaurlaritzak ez du, hainbat usurbildarrek pairaturiko ke eta usain txarren errealitatea onartzen. Ezta, egoera nolakoa den argi erakusten duten bideo eta argazkiak aurrean

jarrita ere. "Bileran agerian gelditu zen, beste behin, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak arazo honen inguruan duten aldea. Udalak, beste behin, eskatu zion Eusko Jaurlaritzari berak emandako baimenean ezarri zituen osasuna babesteko neurriak enpresari betearazteko, zehazki, labea kargatzeko sistema itxia erabiltzeko. Baina Eusko Jaurlaritzak ez du ikusten inongo arazorik UCINen inguruan, Usurbilgo airean egindako neurketetan ezer agertzen ez delako, eta, berez, ez du "datu objetiborik" enpresari ezer exijitzeko. Udalak Eusko Jaurlaritzari galdetuta ea Usurbilgo udaltzainek egindako argazkiak eta bideoak, eta jasotako herritarren testigantzak eta salaketak enpresak sistematikoki filtratu gabeko kea atmosferara isurtzen duela frogatzen duten "datu objetiboak" ez diren, erantzuna ezezkua izan da. Eusko Jaurlaritzak airearen kalitatea aztertze beste kanpaina bat burutzeko konpromezua hartu zuen", berri eman dute Udaletik.

Azaroan, masaje ikastaroa DYArene eskutik

DYAK antolatutako ekimena azaroaren 5etik 19ra. Saioak asteartetik eta ostegunetan izango dira, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara Muna Lurrako egoitza berrian. Prezioa, 60 euro. Plaza mugatuak egongo dira, "emandako formazioaren kalitatea bermatzeko". Parte hartzaileentzat oharra; "kirol arropa eta oinetako erosoarekin jantzita joatea gomendagarria da".

Ikastaroaren helburua oinarriko ezaguerak eskaintzea da, "edonork masaje errazak egin ditzan nahi dugu" diote DYAtik. Hala nola, "muskuluetako, tendoietako, artikulazioetako eta zirkulaziorako arazoak identifikatu ahalo dituzu, ondoren, masaje egokia aplikatzeko". Ikastaroa mendokotasuna duen pertsonaren bat bere ardurapean duenarentzat ere aproposa da. "Ohean daudenentzako masajeak emateko oinarriak erakutsiko dira", gaineratu dute antolatzaileek prentsa ohar bidez. Informazio gehiago eta izena emateko; 943 46 46 22 edo irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com.

Lehen sorospenen ikastaroa

Lasarte-Orian, azaroaren 11tik 29ra, 19:00-21:00 artean, Landa-berrin. Oinarriko ezaguerak irakatsiko dituzte DYAKo Irakaskuntza Eskolako mediku, erizain eta monitoreek. Plaza mugatuak. Prezioa, 100 euro.

Izen ematea eta informazio gehiago: 943 46 46 22 edo email: irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA



TAXI 24h

Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

Eginklik!, ordenagailuak berrerabiltzeko

Gauzak erosi, erabili eta botatzen ibili ordez, dagoena konpondu eta berrerabili daitekeenaren kasu praktikoa bat segidan. Lan talde berri bat sortu da Usurbilen, Eginklik! izenekoa. Euren eginkizuna, zaharkituak geratu diren ordenagailu ekipoa bildu, konpondu eta behar duenari ematea da. Eta guztia doan. Gogotsu hasi dute abentura berria, informatika kontuetan zaletuak diren Mikel Zubigarai, Lukas Arrospide eta Iñaki Unanue herriarrek. Baina laguntza eskertuko lukete; laguntza, ekipoa jasotzeko batez ere. Euren harremanetan jarri edo lan taldera batzeko, telefono zenbaki honetara deitu daiteke arratsalde: 649 216 665 (Mikel).

Lan taldea sortu berri duzue?

Mikel Zubigarai. Duela bi aste hasi ginen hizketan honi buruz. Ekipo piloa botatzen dela ikusi dugu, teorikoki txarrak direnak, baina ez dira txarrak, zaharrak dira. Eta zaharrak berrerabil daitezke. Lagun batekin hizketan jakin genuen Bizkaian bazela talde bat, hamar bat urte daramatela halako lanetan. Euren web orrialdean sartu ginen eta oso ideia polita iruditu zitzaigun. Gure asmoa herri mailan lan egitea da; ordenagailu zaharrak konpondu, eta jendeari muxu truk eskaintzea gero, berrerabil ditzaten. Egongo dira sekula ordenagailu bat izan ez duten pertsonak, eta haien zatidibidez, informatika munduan hasteko aukera on bat izan liteke. Edo haur batentzat, gurasoek ez dute diru askorik gastatu nahi ordenagailu berri bat erosten. Modu honetan ordenagailu erabilgarri bat izango dute. Etxean ibiltzeko nahikoa eta



Mikel Zubigarai, Lukas Arrospide eta Iñaki Unanuek jarri dute ekimen hau martxan.

LUKAS ARROSPIDE

Ordenagailuak, kableak, monitoreak, teklatura, sagua... Ganbaran inork teklaturare bat baditu, guk erabiliko ditugu"

soberan. Hirurok gustuko dugu informatika kontuetan aritzea eta animatuta gaude. Ia zer moduz ateratzen den.

Lukas Arrospide: Jendearen harrera momentuz ona izan da laguntzerako garaian. Baina ez dakigu zenbat ekipa etorriko zaizkigun, zenbat eskaera izango ditugun.

Ordenagailu zaharrak jasotzen dituzue. Herriarrek nola helarazi ditzakete zuengana?

M.Z. Gure telefono mugikorreko zenbakira deituta arratsalde. Bestela, arratsaldero egoten gara frontoian. Halere luzera begira, ia ekipoa jasotzeko laguntza izaten dugun, oso ordutegi murrizta baitugu. Horregatik deialdia egin

nahi diegu herritarrei, nahi duenak gure lan taldean apuntatu dadila, ekipoa jasotzen laguntzeko. Gero guri deitu diezagutela eta guk jasoko ditugu, beste momentu batean. Orain, herriko beste talde batekin lokal bat partekatzen ari gara. Baina oso toki txikia da. Ekimenak aurrera egiten badu, beste toki batera pasatzeko aukera egon daiteke.

“JENDEAK LASAI EKAR DEZALA DUENA”

Ordenagailu ekipa osoak ez badira, piezak edo osagarriak ere probetxuzkoak izan litezke zuentzat?

L.A. Ordenagailuak, kableak, monitoreak, teklatura, sagua... Ganbaran inork teklaturare bat baditu, guk erabiliko ditugu. Ekipoa bera ezin da konpondu agian, baina piezak ere har ditzakegu. Guk ekipoa hartu, ireki eta ahal dugun guztia probetxatuko dugu. Gero jada enkargatuko gara balio ez duena eramateko. Inork ez dezala pentsatu,

ekipoak ez duela ezertarako balio, egongo baitira guretzat beste nonbait aurkitzea zailak izango diren osagai batzuk.

Konponketak eta muntaketa lanak egingo ditugu. Baina ez gara etxetara matxurak konpontzera joango, beste jende bati lana kentzea litzaiteke eta. Ez dugu halakorik nahi.

M.Z. Ekipoa aztertuko ditugu; agian hirutik bat aterako dugu edo agian ez dago probetxatzerik. Ikusiko dugu nola dauden, baina hori bai, konpontzen ditugunak, ondo funtzionatzen eta erabilgarri izaten aterako dira.

San Marko Mankomunitatearekin hitz egin behar dugu, Atalluko Garbigunera joan eta begiratzeko zer dagoen. Ia zer iruditzen zaien. Hori izango da, piezak lortzeko beste modu bat. Jendeak lasai ekar dezala duena. Duela 25 urteko ordenagailu batek 20 urte piztu gabe badarama, agian ez du funtzionatuko. Baina 15 urtetik beherakoek, ziur baietz.

Ian talde berria



Linux sistema ipiniko diete ordenadore berrituei, "ekipo zaharretan oso ondo ibiltzen da".

Konplexua da ordenagailu zahar bat berriro martxan jartzeko konponketa prozesua?

M. Z. Aberiatuta badago, pieza berdinak lortu behar dira eta zaila da. Piezak aurkitzea da zailena. Ekipoa zaharkitua geratu bada, eta etxean gordeta badago, hori martxan jarri liteke. Lehen ibiltzen zena baino arinago jarri liteke martxan berriz, Linux instalatzen baitugu. Sistema oso arina da, ekipo zaharretan oso ondo ibiltzen da. Eta dena dakar.

L. A. Gure ideia da azkenean,

MIKEL ZUBIGARAI

"Ordenagailua zaharkitua geratu bada, eta etxean gordeta badago, hori martxan jarri liteke"

dena programak libreak izatea. Gerora agian informatika klaseak eman daitezke, ikusiko da nola antolatu gaitezkeen. Ez dadila inor gelditu ez jakiteagatik, ordenagailua berrerrabili ezinik.

Konponketa lanak amaituta, ordenagailuak doan banatu dituzue. Nola?

M. Z. Horretan ere jendea inplikatzeko pentsatzen ari gara. Hitz egin dugu ikastolako guraso elkartearekin. Ondo iruditu zaie ideia eta orain beraien artean ari dira hizketan ia parte har dezaketean edo ez. Udaleko Gizarte Zerbitzuekin ere hitz egin behar dugu ia beraien badakiten nola bideratu entrega hori. Beste erremedioirik ez bada, guk entregatuko ditugu, ordenagailurik ez dutenei, erosi ezin dutenei...

Gure Esku Dago herri ekimenaren aurkezpena

Azaroaren 6an, datorren asteazkenean, 19:00-20:00 artean Potxoenean. Erabakitze eskubidearen alde lan egingo duen dinamika herritarra izango da, Gure Esku Dago. Euskal Herria erabakitze eskubidea duen nazio bat dela, eta "etorkizuna herri honetako herritarren esku" dagoela aldarrikatuko dute. Horretarako, herritarrek datorren asteko aurkezpen ekitaldi honetara gerturatzea nahi dute, eta hortik aurrera atxikimendu pertsonalak biltzen joatea. Baita "gehiengo sozial, sindikal, politiko eta erakundeenak" ere. "Begi-runezko jokaera barne hartzailerekin eta era positiboan lan egingo dugu. Aniztasuna eta askotarikotasuna izango dira beraz lanerako printzipioak, ezberdinen arteko gogokidetasuna bilatu eta, ekintza bateratu eta eraginkorren garapenerako jokaleku egoki eta erosoak sustatuz", adierazi dute.

Giza kate erraldoia

Hitzordu bat ere finkatua du jada Gure Esku Dago ekimenak; datorren urteko, 2014ko ekainaren 8an, Durango eta Iruñea erabakitze eskubidearen aldeko giza-kate erraldoi batekin lotu nahi dute, eskuz esku. Informazio gehiago: gureskudago.net/eu/ Bertan, besteak beste, giza-kate horretako metroa erosi daiteke jada. Pertsonako 5,80 euro ordainduta, metroa erosi eta antolaketa gastuak ordaintzen lagundu ahal izango da. Trukean, datorren udaberrian, hainbat produktu jaso ahalko dira, giza-katea ikusgarriago egiteko. Eskualde bakoitzari giza-kate erraldoi horretako zati bat esleitu diote antolatzaileek. Sakana, Donostialdeari.

Odol ematea, astelehenean

Datorren saioa azaroaren 4rako antolatu dute, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

"Usurbil bezalako herri batean oso kontzientziatuak gaude birziklapenarekin"

Teknologia berriak azkar aldatzen doaz, tramankuluak erraz erosi eta botatzen dira. Kontzientzia aldaketa ere eskatzen du honek, erosi eta botatzetik, erabili berrerrabiltzera ohitzea?

Mikel Zubigarai. Usurbil bezalako herri batean oso kontzientzia-

tuak gaude birziklapenarekin. Baina kasu honetan birziklatzera bota baino lehen berrerrabili daiteke. Beste pausu bat da ekologiaren alde.

Lukas Arrospide. Informatikan hasteko, ez da ordenagailu oso indartsu edo handia behar. Gero-

ra nahi badute zerbait handiagoa, edo txiki geratu zaiela, aldatu dezakete. Ordenagailu bat erosten asko gastatu nahi ez duenak, berak ere agian informatika munduan sartzeko, edo seme-alabak hasteko era polit eta merkea da hau, krisi garai honetan.

Errigora, Erribera laguntzeko

Kalitate goreneko produktuez hornituriko elkartasun saskia eska dezakezue azaroaren 14ra arte, NOAUA!ko egoitzan. 50 euro ordainduta, otar hauen barruan dauden Nafarroa hegoaldeko produktu goxo askoak etxera eraman ditzakezue. Saskiotako bat erositak, Nafarroako eremu ez euskalduneko euskalgintzari eta bertako nekazaritzari bultzada emango diozue. Laguntza premian dira eta.

Saskiok banatzeko egitasmoa, Nafarroa hegoaldeko nekazaritza auzolanean indartzen dabilen Errigora ekimenak abiatu du. Eta baita bilgune honetako kideekin elkarlanean dabilzan Zazpiak Bat, AEK, Ikastolak eta Sortzen elkarteek ere. Nafarroa hegoaldeko produktuak plazaratzeko auzolanean dihardute. "Izan ere merkatu globalizatuak konpetentzia baldintza gogorretara behartzen ditu bertako lehengaiekin lan egiten duten ekoizleak. Aldi berean, zonalde ez euskaldun gisa izendaturiko euskalgintzari ekarpentxoak egin nahian bultzada ekonomikoa ematea ere badu helburu", diote Errigoratik.

"Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puzka"

Horrela izena du abiatu berri duten kanpainaren leloak. Ondoko irudian duzuen produktu sorta jasotzen duten saskiak eskuragarri jarri dituzte. Horietako bat NOAUA!ko egoi-



Azaroaren 14ra arte eskatu daitezke saskiak.

HELBURUA

"Egoera larrian den Lodosako ikastolari eskaini nahi zaio laguntza ekimen honen bitartez"

tzan dago ikusgai. Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktuak biltzen ditu, "elikagai batzuk ekologikoak dira, beste batzuk ekoizpen konbentzionalekoak, baina guztiak kalitate onenekoak". Saski koloretzua egitasmo honen eragileen esanetan, merkatuko prezioan salgai dagoena. "Auzolanari esker 50 euroren truke zure eskura. Bertakoa eta kalitatekoa gainera Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara joango da ekarpen horren %25a", diote Errigoratik. Urtero, zonalde ez euskaldun gisa izendatua da-

goen eremuko euskara biziberritzeko proiektu zehatzetara hain zuzen. Aurtengoan; egoera larrian den Lodosako ikastolara; "Euskaraz bizi eta ikasi" herri ekimenera; eta Erriberako helduen euskalduntzea mantendu eta zabaltzera.

Iaz 34.000 euro bideratzea lortu zuten

Iaz Zazpiak Bat Harreman Saarearen ekimenez martxan jarritako egitasmo hau, Ikastolen Elkartarekin batera garatu zen. 1.500 saski banatu eta duela gutxi Nafarroa Oinez ospatu den Tuterako Argia Ikastolara 34.000 euro bideratzea lortu zuten. Aurtun, egitasmoari izen propioa jarri diote, Errigora, eta aurreko urteko lorpena hobetu nahi dute. "Guztion esku dago iazko helburuak biderkatzea gure lan-kidearengana, herriko udale-

txera, ikasleen gurasoengana... lau haizeetara, saski hau zabaltzea. Egizu zure ekarpena, mereziko du!", luzatu die gonbita herritarrei. Modu honetan, nafar produktuen kontsumoa bultzatu nahi dute, bertako nekazarien lana errekonozitu, eta bide batez, ingurune hartako euskalgintza lagundu.

Saski koloretzuek

Aurrerantzean, urtero halako bi kanpaina burutzekotan dira Errigora ekimenekoak. Bat, oraintxe martxan jarri duten moduan, udazken partean, eta bestea udaberrian. Hilabete batzuk barru burutuko den kanpainako otarra, "eguneroko kontsumora bideratutako produktuez osatuko da. Hau da, aniztasun gutxiago eta kantitate handiagoa. Esaterakoa, olio bidoia, orburu kaxa..." iragarri dute Errigoratik.

- Prezioa: 50 euro.
- Produktuak: bi botila olio (bat ekologikoa), 3 piper poto (bat ekologikoa), potxak, kardoak, borraja, orburuak, 2 zainzuri lata, tomate-pikillo saltsa (ekologikoa), barazki krema (ekologikoa).
- Azaroaren 14ra arte: izen ematea eta eskariak. Azaroko azken astean: saskien banaketa eta ordaintzak.

■ facebook.com/ERRIGORAgara
Twitter: @errigora

LATAILLADE

ITURGINTZA
 Gas, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

JUANTXO
 BURDINDEGIA
 Zubiaurrenea 8
 943 370 008

izagirre
 ELEKTRIZITATEA
 943 36 50 95-609 06 81 11
 izagirreletrizitatea@hotmail.com
 Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Odolaren Mintzoa

IZENBURU BERA DARAMAN LEHEN DISKOA PLAZARATU DUTE OIHUKA DISKOETXEAREKIN

Zazpi urteko ibilbidean, hainbat kontzertu eskaini eta maketa bat plazaratu ondoren, lehen diskoa argitara emateko aukera eskaini die Oihuka diskoetxeak. “Taldearen izen bera darama diskoak eta rock, metal, hard core kutsua du”, Luken Arkarazok prentsaurrekoan aditzera eman zuenez. Estilo aldetik, beraz, oinarri erritmiko sendoak dituzte diskoko sei kantuek. “Badira kontraste asko dituzten kantuak, eta badira rock-pop ukitua dutenak ere”, zehaztu nahi izan zuen Arkarazok.

Jokin Irastortza eta Txueka anaiak dira beste taldekideak. Dagoeneko zazpi urte egin dituzte elkarrekin, eta horregatik gogotsu sumatu genituen diskoa aurkezteko Donostian eskaini zuten prentsaurrekoan: “gogoa ere bagenuen CD bat ateratzeko, behingoagatik”, aitortu zuen Beñat Txuekak. “CD honetan agertzen direnak jotzen ditugu orain”, baina kantu gehiago izan badituzte, eta horiek ere eskainiko dituzte aurrerantzean.

Aurretik maketa bat plazaratu zuten. Baina urruti ikusten dute lan hura. “Duela 5-6 urte grabatu genuen argitalpen hura, baina ez du orain egiten dugunarekin zerikusirik”. Oinarri erritmiko sendoak eta gitarra indartsuak dira abestien giltzari.

LETRA ZAINDUAK

Musika estiloa bezain garrantzitsua da esaten dena. Eta nola esaten den. Hitz zainduekin osatu dituzte sei kantuak. Eta hiru dira hizpide hartu dituzten gaiak. Krisi giro honek bereziki gazte jendean du eragin handien, langabezia tasei begiratzea besterik ez dago. Eta



Aurreko astean aurkeztu zuten diskoa, Elkarrek Donostiako Alde Zaharrean duen dendan.

LUKEN ARKARAZO

“Pentsatu genuen errazagoa izango zela gaur egun entzulearengana iristea modu honetan, sei kantu indartsuenekin”

hori da hain zuen, landu duten gaietako bat: “gazte izatetik, gaur egungo egoera zail honek sortu dizkigun ezintasunak, beldurrak” eraginda, Luken Arkarazok adierazi zuenez. “Euskal Herriko beste musika taldeek lantzen dituzten beste bi gai ere: maitasuna / maitasun eza eta Euskal Herriko gatazkaren ingurukoa”.

KONTSUMO JOERAK ASKO ALDATU DIRA

Diskogintza, sortu zenetik hona, asko aldatu da. Baita musikaren kontsumo joerak ere.

Kantu gehiago izan badituzte, baina lehen argitalpen ofizialean, sei kantu bakarrik plazaratu nahi izan dituzte. “Pentsatu genuen, errazagoa izango zela gaur egun entzulearengana iristea modu honetan, sei kantu indartsuenekin. Eta behin publiko bat eskuratu ondoren, epe ertainean...”, argitu nahi izan zuen Luken Arkarazok. Izan ere, beste 10-12 kantu badituzte.

Anjel Valdesek gidatu zuen prentsaurrekoa eta berak ere bere argudioak azaldu zituen. Diskoa prestatzen hasi zirenean, “kantu asko entzun genituen. Iruditu zitzaigun hasiera batean hobe zela indarrak aukeraketa batean oinarritzea. Horrelako formato batean, lagin txiki batekin nahikoa zela taldearen indarra erakusteko, ez genuela gehiago behar”, adierazi zuen Elkar eta Oihuka diskoetxeetako arduradunak.

Sei bala zuzen

Aro berri baten aurrean gaudela dio Anjel Valdesek. “Lehen pausoa da entzulearen arreta bereganatzea, hori da guk nahi duguna. Hortik aurrera, taldea gaztea da, disko asko egingo ditu, kontzertu pilo bat... Baina bidea zabaldu behar da lehenbizi”. 6 eurotan eskura daiteke diskoa dendetan, Durangoko Azokan 5 eurotan. Taldeak zuzenekoetan ere salduko du diskoa. “Ahaztu dezagun merkatua, lehenbizi musika zabaldu behar da eta gero musikak berak esango du nondik nora jo behar dugun”.




NOAUA! Kulturaldia

kultur espresio ezberdinen erakusgarri izango da

Azaroarekin batera iritsi ohi da NOAUA! Kulturaldia. Askotariko osagaiekin dator aurtengo eskaintza: antzerkia, bertsoa, musika, zinea, hitzaldia eta herriko ondarea ezagutzeko ibilbidea. Bi asteburu hartuko ditu aurtengo Kulturaldiak. Gogoan izan NOAUA!ko bazkideok sarrerak merkeago eskuratu ahal izango dituzuela.

Azaroak 9 larunbata, “Ez gara Palestinaz ari”

“Bai bertsolariak garelako, baita gure kulturagatik ere, oso ohituta gaude gai estratosferikoez hitz egiten: gai sozialez, politikoez... Ihes egiten diogu, ordea, geure buruaz hitz egiteari”. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak beren barne munduei eta buruei begira idatzitako ikuskizuna da “Ez gara Palestinaz ari” izenekoa.



“Ez gara Palestinaz ari” ikuskizunean Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak hartzen dute parte.

Muñoaz eta Lizarraldez gain, Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariak hartzen dute parte ikuskizunean. Atxegak gitarra joko du, eta, gainera, bi bertsolariak lagundu die sortak musikatzeko eta doi-

nuak aukeratzen. Kamiok, berriz, akordeoia eta pianoa joko ditu. Umorea ere gehituko diote taularatutakoari, “mezu sakonak eta trinkoak arintzeko”, Unai Muñoak hedabideetan esana.

Azaroak 9 larunbata

20:00 SuteGIN. Sarrera: 8€ NOAUA!n eta Txiribogan alde aurretik, leihatilan egunean bertan. NOAUA!ko bazkideek: 6€ (Soilik NOAUA!ko egoitzan, eta alde aurretik).

Azaroak 8 ostirala “Aktibo Toxikoa” antzezlan

Hor dator “Bat”, Bat Jauregi. Bere maleta eta guzti, jendearen artean azaltzen da. Han irrifar bat, begirada triste bat hemen, maletan darama arima. Pailazo bat?, mimo bat?, klown bat? guzti hori bada ere, pertsona da eta.

Bat Jauregi politikaria izandakoa da. Erretiroa hartutako gizasemea. Krisiak bete betean harrapatu du eta ekintza bat egitera dator. Bankuak etxetik botatu du eta kale gorrian utzi du.

Baina ez dago geldirik egoteko prest. Ez du nahiko kanpaldi, kontzentrazio edo “indignados” talde bat osatzea.



Berak beste zerbait antolatuko du. Eta horretarako konbokatuko gaitu, zuen herriko kale edo plaza batean, bere ekitaldian parte hartzeko.

Azaroak 8 ostirala

20:00 SuteGIN. Sarrera: 5€ NOAUA!n eta Txiribogan alde aurretik, leihatilan egunean bertan. NOAUA!ko bazkideek: 3€ (Soilik NOAUA!ko egoitzan, eta alde aurretik).

Azaroak 10 igandea Herriko ondarea ezagutzen

Herria beste era batean ezagutzeko modurik ere bada. Herri ondarearen bitartez. Aukera ederra izango da azaroaren 10erako antolatu dugun txangoan. Kaxkoan hasiko dugu goizetik eguerdi partera arte luzatuko den irteera; Urdaiaga aldera lehenik, Txokolaldera gero, Aginagan amaitzeko. Herritar orori zuzenduriko paseoa, zailtasun gabea, Jakoba Errekondo paisajistaren argibideak bide lagun ditugula.



abiatuta, doan, irekia guztiontzat. Oharra: ibilbide amaieran, itzulera autobusez, oinez edo autoz egin ahal izango da.

Azaroak 10 igandea

Herriko ondarea ezagutzeko ibilbidea. 9:30-13:00 frontoitik

“Izenik gabe 200x133”, Jose Luis Zumetaren inguruko dokumentala Sutegin ikusteko aukera

Jose Luis Zumeta margolariak desorduetan lan egiten du bere tailerrean, Nafarroako Arribe herrian kokatuta dagoen antzinako autobus geltokian. Oraingo honetan, 200x133 tamaina izango duten bi margolanekin ari da lanean. Ondoren, Donostiako suhiltzaileen geltokia izandako eraikinean erakusgai egongo dira lanok. Bi margolan hauen sortze prozesua da dokumental honen bizkarrezurra. Donostiako Zinemaldian eman zuten lehen aldiz eta Kulturaldiari eta Usurbilgo Udalarari esker, Sutegin ikus ahal izango dugu pelikula hau. Azaroaren 15ean.



Azaroaren 15ean ostirala, Sutegin. Gonbidapen bidez eskura daiteke pelikula ikusteko sarrera.

Lehenengo aldiz eta kameraan aurrean, bere barneko eta bakarra duen sortze-prozesua azalduko du margolariak. Grabazio taldearen jarraipena erabatekoa da: Zumetak mihisea eraikitzen duenean hasten da,

obren garapena jarraitzen du eta ondorengo erakusketarekin amaitzen da.

Margolariaren obra hobeto ulertzeko, Zumetaren gertuko lagunak ere ageri dira pelikulan. Hauek emandako eran-

tzunen bitartez ezagutuko ditugu Zumetaren berezitasunak, margolariaren ibilbidearen klabeak, bere garapena, eta orokorrean, artista handiaren baitan dauden atal guztiak.

Azaroak 15 ostirala

Jose Luis Zumetaren dokumentala. Sutegin, 19:30ean. Gonbidapen bidez. Horiek eskuratzeko: NOAUA!n eta Potxoenean.

Azaroak 14 osteguna Joseba Tapiaren hitzaldia

Musika irakaskuntzaren inguruan azken urteetan egindako hausnarketak biltzen ditu jendaurreko saio praktikoko honek. Belarriaren garrantzia azpimarratzeko eta azalpenak hornitzeko hainbat instrumentu baliatzen ditu (aho-soinua, ukelelea, baxua edo soinu txikia). Herri musikak (trikitixa, folka, rocka...) ganbaratik akademiara, entsegu lokaletik musika eskolara egin duen bideak kezka sortzen dio Joseba Tapiari, musika klasikoa irakasteko pedagogia bera ezartzen ari delakoan herri musikaren esparruan.



Azaroak 14 osteguna

“Belarriak soinu”, Joseba Tapiaren hitzaldia. 19:30ean Potxoenean. Sarrera, doan.

Azaroak 17 igandea “Agur esatea” filma

“Agur esatea” 36ko gerran kokatzen da. Haurtzaroaren eta nortasunaren galerari buruzko istorioa da, baina batez ere, esperantzaz betetako kontakizun hunkigarria.

Animazio teknika berritzaileak erabiliz, 1937an Erresuma Batura ebakatu zituzten Euskal Herriko ia 4000 haurrei buruzko istorioaz mintzo da filma.

Gaur egun 80-90 urte bitartean dituzten 14 haurren ahotsten bidez historiaren gertaera tragiko hau jaso dute, animaziozko teknika baliatuz. Emaizta, dokumental itxurako filma.



Azaroak 17 igandea

“Agur esatea” filma. Zuzendaria: Izaskun Arandia 19:00 Sutegin. Sarrera: 5€ NOAUA!n eta Txiribogan alde aurretik, leihatilan egunean bertan. NOAUA!ko bazkideek: 3€ (Soilik NOAUA!ko egoitzan, eta alde aurretik).

Ramon Uribek ere aspaldi kalean behar zuen

Zigorra beteta kalean behar zuen arren, espetxean zen Ines del Rio berehala aske uztea eskatu zuen Europako Giza Eskubideen Auzitegiak. Eta 24 orduren buruan, tartean Espainiako Auzitegi Nazionalak ezohiko batzarra egin eta Estraburgok adierazitakoarekin bat egin ostean, kalean zen Tallako herritarra. Berehala entzun ziren, 197/2006 doktrinaren eraginpean kartzelaratuak jarraitzen zuten gainerako presoak ere aske uzteko eskararak.

Besteak beste, egun berean iluntzean, Usurbilen. Egoera horretan dira 50etik gora eskal preso, usurbildar bat tartean; Ramon Uribe. Zigor osoa beteta iragan abenduaren 3an sorterrian behar zuen arren, "Parot" doktrinapean Salamanca Topasen espetxeratua dago oraindik. Azken egunotako gertakari hauez Ramon Uriberen arreba Ainararen hitzak jaso ditu NOAUA!k, epaia kalera eta egun gutxira.

Estrasburgoko epaia nola jaso duzue etxean?

Ainara Uribe. Berri oso ona izan da. Zuhurtzia handiz hartu dugu albistea, aurreko abenduaren 3an kolpe handia jaso genuen eta. Urriaren 21ean astelehena kaleratu zen epaiarekin pozik gaude. Egundorretan, 11:30ak paseak zirela jada Ramonek deitu zuen etxera. Amarekin hitz egin zuen, bera ere oso lasai eta oso pozik zegoen.

Nola baloratzen du albistea?

A. U. Aurretik ere oso urduri zegoen. Eta gero jada astelehenen lasaitasun sentsazio handia zuen, arrazoi eman dielako borroka honetan. Injustizia hau bukatu da. Halere hankak lurrean izan behar, orain Auzitegi Nazionalak erabaki behar baitu noiz atera behar duten.



Ainara Uribe:
"Injustizia hau bukatu da. Ia Eguberrietarako etxean dagoen"

Mobilizazio ugari egin dira egunotan.

Espero izatekoa zen, epaia hain irmoa izatea?

A. U. Behar zuena izan da, baina ez genuen espero hain argia izatea. Epaia agian Ines del Riori bakarrik eragingo zio-la uste genuen, baina ez, orokorra izan da. Poztekoa.

197/2006 doktrinaren eraginez preso jarraitzen dutenen egoera, kasuz kasu aztertuko omen dute?

A. U. Epaia hau bete beharra dute. Berri ona da gainera, Estraburgoko epaiak ez baitio bakarrik Ines del Riori eragiten, baizik eta globalagoa, zabalagoa da. Abokatuek esan dutenez, kaleratzeak ahalik eta azkarren izan behar du, bertan behera geratzen baita lege hau. Orain, presoen kaleratzea nola egingo duten? Auzitegi Nazionalak ia zer erabakitzen duen. Auzitegi Nazionala ostiralero biltzen da. Ia Ramon eguberrietarako hemen dagoen.

Argitzeke dago zer modutan bideratuko duen prozedura Auzitegi Nazionalak. Zenbat luzatu litekeen edo badakizue?

A. U. Abokatuek ez dakite

ezer. Ez dakite prozesu hau nola emango duten Auzitegi nazionalen. Beraiek badakite ostiralero biltzen dela Auzitegi Nazionala. Baina argi dago, kaleratzeak berehalakoa izan behar duela. Presoen giza eskubideak bete beharko dituzte.

Ramonen kasuan, errekurtsioa aurkeztua dago jada?

A. U. 56 presoren abokatuek aurkeztu zuten errekurtsioa. Ramoni 197/2006 doktrina aplikatu zitzaionean ere, abokatuak errekurtsioa aurkeztu zuen. 56 preso hauen egoera aztertzen hasiko da Auzitegi Nazionala.

Presoen eskubideen defentsari bultzada handia eman dio epaiak?

A. U. Egia esan bai. Bide batez, eskerrak eman herriari, elkartasun keinu eta mezuengatik. Baina esan presoen eskubideak defendatzen jarraitu behar dugula, preso gehiago bai baitira herrian. Horretan jarraitu beharko dugu denon artean, hemen ez baita bukatzen.

Iragan ostiraleko presoen eskubideen aldeko mobilizazioa, Herriraren aurkako po-

lizia operazio osteko lehena izan zen. Hilabete mugitua izan da.

A. U. Gauza asko gertatu dira. Argi zegoen zer egingo zuten, batetik polizia operazioa eta bestetik Estraburgoko epaia. Halere, presoen eskubideak defendatzen segitu behar dugu. Oraindik preso asko daude bai herrian eta Euskal Herrian.

"Auzitegi Nazionalaren esku"

Pozik hartu du Usurbilgo Ernaik Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 197/2006 doktrinaren aurka, urriaren 21ean kaleratu zuen epaia. Baina gogorarazten dutenez berandu dator, "oraindik preso jarraitzen duten euskal herritarren zoria espainiar Estatuaren esku dago, tartean Ramon Uribe Navarro usurbildarra". Gaur epaia bete dezaten, bihar gainontzeko salbuespen neurriak bertan behera gera daitezten eta etzi euskal preso eta iheslari politikoak etxean, libre izan daitezten, borrokan jarraitzea ezinbestekoa dela diote Ernaitik. Lege honen aurka borrokan aritu direnak zorientzen ditu gazteen bilguneak, plazaratu duen oharrean.

Euskarazko irakurketa-topaketa prestatzen ari dira liburutegian



Jon Arretxeren "19 kamera" nobela hizpide hartuko dute azaroaren 25ean.

Azaroaren 25erako, astelehena, arratsaldeko 19:00etan programatu asmo du ekimena, Pako Aristi gidari duela. Topaketa honen baitan, Jon Arretxeren "19 kamera" liburua komentatu da. "Parte hartzera animatuko zinateke?" luzatzen dute gonbita liburutegitik. Interesa duenak, Sutegiko liburutegiko harreara gunera bertaratu eta jakinarazi dezala inolako konpromisorik gabe. Hitzordu honi loturiko ohar bat; azaroaren 25ean komentatu den Jon Arretxeren "19 kamera" "liburuaren ale ezberdinak Liburutegiak eskuratuko ditu interesa due-

narentzako; izan ere, liburua alde aurretik irakurritz gero, etekin handiagoa aterako baitiogu topaketari".

Ipuin kontaketa saioa, arrakastatsua

Iragan urriaren 17an, Miriam Mendoza ipuinak kontatzen aritu zen HH4koei Sutegi udal liburutegian. Ekimena beste behin, arrakastatsua izan zen, antolatzaileek blog bidez berri eman dutenez. Ekitaldiko bideo bat zintzilikatu dute eta baita balorazio kronika ere, helbide honetan: liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/

Udarregi Ikastolako beka deialdia, martxan

2013-2014 ikasturterako diru-laguntza deialdia martxan da Udarregi Ikastolan. Azaroaren 5era arteko tarte dago, eskabide inprimakia jaso eta ikastolako idazkaritzan aurkezteko.

Udarregitik ohartarazi dutenez, "2012-2013 ikasturtean beka edo laguntza jasotako ikasleek datu-orri ofiziala bete beharko dute soilik". Jaso daitezkeen diru-laguntzen eta diru sarrerren taulak idazkaritzan eskuratu daitezke. Edo bertara deituta, 943 36 12 16.

Informazioa, Ikastolako idazkaritzan

Diru-laguntza eskaerak aurkeztu edo informazio gehiago jasotzeko, ordutegi honetan gerturatu daiteke ikastolako idazkaritzara, astelehenetik ostiralera: 12:00-13:30 / 14:30-17:00.

Gabonetako loteria

Udarregiko web orritik jakinazi dutenez bestalde, "urtero bezala, Ikastolak Gabonetako loteria salgai duela jakinarazi nahi dugu. Loteria ikastolako eta Haur Eskolako idazkaritzan eros daiteke eta txartel bakoitzaren zenbatekoa 5 eurokoa izango da (4 euro loteria + 1 euro laguntza)".

NOAUA! Txiki

DBH4ko drogamenpekotasun ikastaroa

Udarregiko DBH4.mailako ikasleok aurten drogamenpekotasunari buruzko ikastaro bat egiteko aukera izan dugu. 3 astetan, ostiralero, bi orduko saioak izan ditugu. Ikastaro hau Izar Arregiren gidaritzapean egin dugu. Ikastaro honen helburua, alde batetik drogei buruzko arriskuak ezagutzea izan da, eta bestetik, drogen aurrean nola jokatu jakitea.

Lana egiteko modua honako hau izan da: bakoitzak gure esperientziak azaldu ditugu, eta hortik abiatu gara gai honetan gehiago sakontzeko. Gainera, interesatzen zaigun gai baten inguruan hitz egiteko eta gure sentimenduak klasearen aurrean adierazteko aukera izan dugu.

Horrela, gure artean konfiantza eta giro on bat sortu da.

Atentzio gehien sorrarazi diguna, drogen aurrean jendeak nola erreakzionatzen duen entzutea izan da honek, gure kontsumoak dituen arriskuak argitzen lagundu digu. Gurasoen eta irakasleen aurrean gai honen inguruan ez dugunez hitz egiten, hemen aukera izan dugu gure kezkek azaltzeko. Gai honek, gu bizi garen giroak zer ikusi handia duela konturatzera eraman gaitu.

Ikastaroaren ostean, gure kezkek bakarka azaltzeko aukera eman digu Izarrek, konfiantza eman digunez oso gustura sentitu gara berari galderak egiteko garaian.

Gure denbora libreko gai ei buruzko ikastaro-



"3 astetan bi orduko saioak izan ditugu".

ak egitea baliagarria iruditzen zaigu eta berriro ere horrelakoak egitea komenigarria iruditzen zaigu.

Gazte mugimenduak, bi eragile aurrerantzean

Itaya, Ernai eta Usurbilgo Gaztetxeko kideek udan zehar burutu duten hausnarketa prozesuan erabaki dutena da. Orain arte bezala hiru ez, hemendik aurrera Usurbilgo gazte mugimendua bi eragileek osatuko dute: udaberrian jendaurrean aurkeztu zuten Ernai gazte erakundeak eta Gazte Asanbladak.

Honenbestez azken hiru urteotan hainbat ekimen antolatu dituen Itaya desagertuko da. "Itayak bere jarduna eta ibilbidea amaitu ditu, etorkizunerako lanak Gazte Asanbladari utziz", adierazi dute Usurbilgo Gazte Asanbladako kideek, NOAUA!ra helarazi duten oharrean. Gazte Asanbladak, Usurbilgo Gaztetxea kudeatuko du, eta beste hainbat alorretan ere lan egingo du; haur nahiz helduentzako "aisialdi alternatibo, euskaldun eta parte hartzailea eskaintzen" esaterako. Gazteriaren sakabanaketarekin amaitu, ama lurra defendatu edota etxebizitzaren gaia, jorratuko dituzten beste lan ildoak izango dira.

Uda partean buruturiko hausnarketa prozesuan hartutako erabakia izan da hau. Prozesu hartan, "mugimendu bakoitzaren lan ildoak zehaztu genituen eta ondorio eta erabaki garrantzitsu hauetara iritsi ginen: Usurbilgo gazte mugimenduak bi eragile izango ditu, batetik, Ernai gazte erakundeak (independentzia, sozialismoa eta feminismoa) eta bestetik, Gazte Asanblada". Euren



Gazte Asanblada sortu da eta Itaya ordezkatzeko du.

esanetan indarra galtzen ari zen gazteen mugimenduari bultzada eman nahi diote modu honetan. Lehen hiru eragile zirela (Itaya, Ernai eta Gaztetxea), "hiruren artean kohesio falta eta ondorioz gazte mugimendua indarra galtzen ari zela nabaritu genuen. Gazte batzuk bi eragiletan hartzen zuten parte, beste batzuk hiruretan, hainbat gaztek borrokatzeari utzi zioten... Horregatik, egoera ezegonkor honen aurrean alternatiba bila, uztaila eta abuztua bitartean, herriko gazte mugimenduaren hausnarketa prozesua abian jartzea erabaki genuen".

Agur, Itayari

Eta aipatu moduan, prozesu amaieran erabaki den moduan, orain bi eragileren artean egituratuko da Usurbilgo gazte mugimendua; Ernai eta Gazte Asanbladarekin hain justu. Itaya desagertuko da beraz. Gazte Asanbladak, 2011n sorturiko bilgune haren ingu-

ruko balorazio baikorra egin du. Emankorra izan da Itayak gazte mugimenduari egin dion ekarpena. "Duela 3 urte inguru, Usurbilgo gazte problematikari kolektiboki aurre egiteko Itaya gazte asanblada sortu genuen. Itayan herriko adin ezberdinetako gazteak elkartu, aktibatu eta ekimen ezberdinak burutuz kalera ateraginen. Helburu nagusia elkarrizketetan ateratako gizarte arloko arazoak lantzea izan zen (errauskailua, langabezia, euskararen egoera, identitate eta nazio zapalkuntza, Euskal Herriko gatazkaren egoera, etxebizitza, aisialdi alternatiboa...) eta bide batez, herriko gazteen sakabanaketari amaiera ematea, elkar ezagutzuz eta harreman naturalak sortuz", adierazi dute Gazte Asanbladatik.

Gerora, Itayaren eskutik etorri zen Alkartasuna Kooperatiba egoitza ohia okupatzea. Duela urtebetetik bertan du egoitza Usurbilgo Gaztetxeak. "Herriko norbanako zein eragi-

le ezberdinen ekimenen erabilpenerako eta sormenerako, gune autogestionatu, ireki eta aske baten behar handia ikusi baikenuen. Erronka hau ilusio eta motibazioz beterik hartu genuen, urte guztian zehar ekintza mordoa burutuz Gaztetxean. Horregatik, gure us-tez, argi geratu da Usurbilek gaztetxe baten beharra zuela eta duela", diote Gazte Asanbladatik.

2012ko abuztua agurtzerako, bi eragile baziren jada; Itaya eta Gaztetxea. Eta hirugarrena, Ernai, sortze prozesuan zen, "non Itayako eta gaztetxeo gazte batzuk parte hartu zuten prozesuan bertan. 2013ko ekainerako, Ernai eraikita eta jada lanean zegoen, ondorioz, herriko gazte mugimenduaren mapa aldatu egin zen", diote Gazte Asanbladatik. Hausnarketa prozesua etorri zen gero, eta hirutik bi eragile izatera pasa dira orain.

Gazte mugimendua Usurbilen

2011: Itayaren sorrera.

2012/8/25: Alkartasuna kooperatibaren egoitza ohiaren okupazioa. Usurbilgo Gaztetxearen sorrera.

2013/4/20: Usurbilgo Ernai gazte erakundearen aurkezpena.

2013/7-8: Usurbilgo gazte mugimenduaren hausnarketa prozesua.

2013/udazkena: Itayaren desagertzea eta Gazte Asanbladaren sorrera.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 **teillatuak eta fatxadak**
943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA


Otar-Goxo
 ELIKAGUIAK
 Zubiaurrenea, nº2
 ☎ 943 36 55 81
 20170 Usurbil

Zuen
publizitatea
hemen
 ☎ 943 360 321
 publizitatea@noaua.com

Bidarrai-Amaiur ibilbidea osatzeko gonbitea



Zubi hau igaroko dute azaroaren 10eko ibilaldian.

Azaroaren 10erako Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoek antolatuta duten txangorako izen ematea zabaldu dute jada. Joan etorria autobusez egingo baita. Honenbestez, azaroaren 6a baino lehen apuntatu beharko dute interesdunek. 15 euro ordaindu beharko dituzte Andatzako bazkide eta langabetuek, 17 euro gainerakoek. Ordainketak Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak Kutxabanken duen kontu korronte zenbaki honetan egin beharko dira: 2095 5069

07 1068489805. Plazak mugatuak izango dira, eta lehenetsuna Andatza MKTko bazkideek izango dute. Janaria norberak eraman beharko du, edaria antolatzaileen esku. Otordua, ibilbide amaieran egingo dute.

Usurbildik abiatzeko hitzordua azaroaren 10ean, goizeko 6:30etarako finkatu dute Oiardo Kiroldegian. Bidarrai-Amaiur arteko ibilbidea 17 kilometrokoa izango da, bost bat ordu eta erdiz egiteko modukoa. Informazio gehiago: andatza.com

Carlos Jimenez bigarren, Donostiako patinete lasterketan



Usurbildarrak urriaren 20an ospatu zen Donostiako 15 kilometrotako lasterketan parte hartu zuen, patinekin. Bigarren postuan sailkatu zen, 40 urtetik gorakoen mailan. Udarregi Ikastolan haurrei patinetan ibiltzen irakatsia da Jimenez. Argazkia podiumekoa da. Carlos ezkerrekoa da.

Irisasi BTT taldeko arropa eskuragarri

Mendiko nahiz errepideko bizikletan ibiltzeko arropa eta ekipazioa erosteko eskaintza egin dute bigarren, Irisasi BTT taldekoek. Kalitate bikaineko arropa dute salgai eta oso prezio egokian, adierazi dutenez.

Denen neurriko arropa prestatu nahi izan dute; XS, S, M, L, XL, XXL. Eskariak azaroaren 17ra arte egin daitezke.

Nola egin eskaria

Horretarako, Irisasi BTT taldekoekin harremanetan jarri behar da, 687 858 477 telefono zenbakira deituta, edo andatzabt@hotmail.com helbidera idatzita. "Ez galdu aukera! Oso eskaintza interesgarria baita!", adierazi dute kirol bilgunetik. Eskaria egiten dutenek, 6 asteren bueltan edo jasoko dute arropa, "zorte apur batekin akaso gabonetarako".

Eskaintza ederra

- Udako ekipazioa: mallot eta kulote motzak.
- Udaberri eta udazkenerako: kulote piratak eta txalekoa.
- Neguko ekipazioa: mallot eta kulote luzeak.
- Euritarako txaketa.
- Osagarriak: besoetako mangitoak eta hantetarako pernerak.
- Udako kamiseta termikoa.

Futbola, Haranen

Azaroak 2, larunbata

Goizean, kadete areto futbolak.
11:00 Infantilak.
17:00 Jubenilak.

Eskubaloia, Oiardon

Oharra: behin behineko ordutegiak.

Azaroak 1, ostirala

10:00 Senior neskek:
Usurbil K.E.-Aloña Mendi.

Azaroak 2, larunbata

12:30 Kadete mutilak:
Usurbil K.E.-Tolosa CF.

19:00 Senior mutilak, 1. T:
Usurbil K.E.-Irungo Gaztiak.

Azaroak 3, igandea

11:30 Jubenil mutilak
Usurbil K.E.- Zarautz.

tak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa [EGA, HABE, IVAP, IRALE]. 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egu-

nez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketaregiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsaldez edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Edadeko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko, interna moduan, emakume bat behar dugu. 664149612

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera. Harremanetarako: 635742503

Mapfre aseguru etxearen bulegorako Administrazio-Komertziala behar da. Ezinbestekoa da herrikoak izatea. Bidali kurrikulum-a ullaitei@mapfre.com

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M^a Angeles)

BESTELAKOAK

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Mountain Bike bizikleta bat salgai. Orbea Alma H60 29ER markakoa. Gizonezkoana. Berri berria dago. Prezioa: 500€. Tel. 666 373 150.

Aurtengo eta hemengobabarunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Telebista salgai, Sony markakoa. Egoera onean eta prezio bikaina, 80 euro. 653 014518

Pedaligabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunba-

tean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Kolore more eta grisdun nesken-tzakobizikleta berria (Coluer) lapurtu ziguten abuztuaren 31 narratsaldez, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

Aginagako artoa salgai 687706363

Teniseko raketa bat aurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Erosi gasolina sorgailu elektrikoa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpeteta eta tronboi jole bila gabilta uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebista, patinetek, eskegailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispi-lua, liburuak, haur jolasak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldez, 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskatel	900 840 840

Goardiako farmaziak urriak 31-azaroak 10

Osteguna	31	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Ostirala	1	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata	2	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Igandea	3	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Astelehena	4	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astearte	5	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Asteazkena	6	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte

Osteguna	7	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Ostirala	8	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Larunbata	9	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea	10	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda azaroa

1 ostirala

- **Artisautza Azoka** 35/02 epaiketa: LIBRE gunea.
- **Ama!!!Txo** erakusketa kolektiboa Sutegin. Ostegunak/ostiralak: 18:00-20:00.

2 larunbata

- **Ama!!!Txo** erakusketa kolektiboa Sutegin. 12:00-14:00 / 18:00-20:00.

3 igandea

- **Tipi-Tapa** goizetik 15:00ak arte.
- **"Animal Channel"** umeentzako pelikula Sutegin. 17:00etan. 3 euro.
- **Ama!!!Txo** erakusketa kolektiboa Sutegin. Igandetan: 12:00-14:00.

Gaztadun zizka-mizkak, igandeko Tipi-Tapan

Egin lekua sabelean igande eguerdiko pintxo festarako, hemen da berriz, IX. Tipi-Tapa. Azaroaren 3ko edizioan, gaztadun moka- du bereziek; lasaña, brotxetak, kroketak, pudina... Urteko ardo zuri, gorri edo beltz, txakolin, ur, sagardo, zurito edo muztioz lagundua 2 euro-tan. Edaririk gabe, pintxoa bakarrik, 1,5 euroren truke. Eta pintxo bereziok bost ez, joan den urriaz geroztik zazpi edaritegietan zerbitzatzen dituzte; urriaz geroztik Hurbilago Elkartean egitasmoarekin bat egin duten tabernak bi gehiago dira eta. Iazko bostak, Txapeldun, Artzabal, Txiriboga, Aitzaga eta Bordatxo. Eta bi berriak, Xarma eta Txirristra. Hurbilago Elkarteko establezimenduetan xahutzeko hurrengo erosketa balea hain



Zazpi edaritegik hartzen dute parte Tipi-Tapan.

zuzen, Xarman zozketatuko da, igande arratsaldeko 15:00etan.

Datozenak

Euskal zineaz gozatzeko garaia

Azarotik martxora, hilero, haur eta helduentzako euskal filmen proiektzioak. Igande honetan, azaroak 3, "Animal Channel" animazio filma ikustera gerturatu ahal izango dute etxeko txikiak. 17:00etatik aurrera, eta 3 euroren truke, 72 minutuko istorioan murgildu ahal izango dute. "Cathy zikoinak eta Nicolas saguak, euren zinema itxi beharko dute. Adorea eta irudimena dute sobera dute ordea...

"Amaren eskuak", azaroaren 10ean

Haurrei zuzenduriko filma proiektatu eta astebetara, helduen txanda hilero, azarotik martxora. Azaroaren 10ean, duela gutxi estreinatu den "Amaren eskuak" filma proiektatuko dute, 18:00etatik aurrera Sutegiko auditorioan. Sarrera, 5 eurotan. Karmele Jaioren izen bereko liburuan oinarrituta zuzendu du filma Mireia Gabilondok.



Azaroaren 10ean eskainiko dute "Amaren eskuak".

Paleta ikastaroa emakumeentzat

Azaroaren 11n abiatuko da ikastaroa, ekainera arte luzatuko da. 16 urtetik gorako emakumeei zuzendua dago. Saioak frontoian izango dira, astelehen arratsaldeko 19:30etik 21:00etara (1. maila). Asteazkenetan goiz eta arratsaldeko 9:00-11:00 artean eta 19:30-21:00 (2. maila) artean. Izena ematea azaroaren 8ra arte zabalik, Oiardo Kiroldegian. Prezioa; 50 euro. Informazio gehiago: 943 372 498 edo kirola@usurbil.net. Pagazpe elkarteak antolatuta du ikastaroa.

Amari eskainitako artelanak Sutegin ikusgai

TXO! izeneko kolektiboak bultzatu du Sutegin den erakusketa. Besteak beste, usurbildar baten eskultura bat ikusteko aukera dago; Pelexen artelana, poema hunkigarri batekin lagundua. Amari eskainitako artelana hau ere, erakusketa amaieran bertan geratuko dena.

Bisita egunak eta orduak dituzue ondokoak.

- Ostegunak/ostiralak: 18:00-20:00.
- Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.
- Igandetan: 12:00-14:00.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ONTZI ARINETAN PLASTIKODUN ONTZIAK, LATAK ETA BRIK-ak SOILIK



**INGURUMENA GUZTION ARDURA DA
BIRZIKLA DEZAGUN!**



GOGORATU: ONTZI ARINAK ASTEARTE ETA OSTIRALETAN

Sarreren salmenta



"BESTA BERRI"

Argia Dantza Taldea
AZAROAK 9, larunbata, 20:00h



"FISTERRA"

Blanca Portillo & Angeles Martín
Entretajas producciones
AZAROAK 10, igandea, 20:00h

Andoain Ekitaldia

<http://basterokulturgunea.blogspot.com.es>



NOAUA!ko KULTURALDIA 13

AZAROAREN 8TIK 17RA

AZAROAK 8 > OSTIRALA

"AKTIBO TOXIKOA", ANTZERKIA
ORDUA: 20:00 SUTEGIN
SARRERAREKIN

AZAROAK 9 > LARUNBATA

"EZ GARA PALESTINAZ ARI"
BERTSO-MUSIKATUAK
ORDUA: 20:00 SUTEGIN
SARRERAREKIN

AZAROAK 10 > IGANDEA

HERRIKO ONDAREA EZAGUTZEKO
IBILBIDEA, 9:30 FRONTOITIK
ABIATUTA, DOAN

AZAROAK 14 > OSTEGUNA

"BELARRIAK SOINU", HITZALDIA
JOSEBA TAPIA
ORDUA: 19:30 POTXOENEAN
DOAN

AZAROAK 15 > OSTIRALA

"IZENIK GABE, 200x133", JOSE LUIS
ZUMETAREN DOKUMETALA
19:30 SUTEGIN, GONBIDAPENA*

AZAROAK 17 > IGANDEA

"AGUR ESATEA" FILMA
IZASKUN ARANDIA
ORDUA: 19:00 SUTEGIN
SARRERAREKIN

SARRERAK: NOAUA!N, TXIRIBOGAN ETA LEIHATILAN.
GONBIDAPENAK: NOAUA!N ETA POTXOENEAN.

noaua



Uztaritze Udala



Euzko Foru Erkidegoa



Euzko Legebiltzaria



EHAZE